

## solasean



Alain Callejo Matia jaiotzez bizkaitarra da. Baina gaur egun Ziekon bizi da. Gure eskualdean lan egiten du, Samaniegoko Zaharren egoitzan zehatz-mehatz. Gazte hau IKA euskaltegiko ikaslea da; gainera, Ziekoko udaletxean zinegotzia ere bada.

### ¿Cuándo empezaste a estudiar euskera?

Desde pequeño, empecé a estudiar en la Ikastola de Sopela. Luego me trasladé a la escuela de Mungia. Y al venir aquí estudié en la escuela de Elciego y en el instituto de Laguardia. A lo largo de todos esos años tuve contacto con el euskera, ya que algunas asignaturas las tuve en este idioma. Pero veía la necesidad de mejorarlo y dominarlo. Por eso, me apunté al euskaltegi a los 17 años, estuve durante cuatro años. Luego lo dejé. Hoy en día sigo, porque además de ser una buena oportunidad para practicarlo, me quiero sacar el segundo perfil lingüístico, que me viene bien para mi trabajo.

### ¿Como ha sido tu experiencia a lo largo de estos años?

Es muy bonito y enriquecedor. También tengo que decir que se hace duro, son dos horas al día de clase y los horarios pueden variar de un año a otro, pero ir toda la semana de 19,00 a 21,00 a clase, en invierno a mi personalmente se me hace duro. Aunque, en realidad, estudiar un idioma tiene que ser así y el que algo quiere, algo le cuesta. Merece la pena hacer ese esfuerzo.

**Hizkuntza bat ikastea gogorra da; baina, merezi duen esfortzua da: gogoko lekuan, aldaparik ez!**

### ¿Que dirías de las clases y el metodo?

Las clases son dinámicas y nos toca hacer de todo: ejercicios de gramática,



ver videos, grabarnos hablando sobre un tema.... Además hay buen ambiente, acabas conociendo a mucha gente, ya que, nos juntamos alumnos de diferentes pueblos.

**A parte de las clases, el euskaltegi organiza diferentes eventos culturales y tú los conoces bien, porque sueles acudir. ¿Qué opinas sobre eso?**

Sí, suelo ir, me gusta. Por ejemplo, la sesión de cortos de Biasteri, las charlas musicalizadas que se han realizado en diferentes sitios: Mendavia o Biasteri.

A alguna no he tenido opción de ir, por ejemplo, a la celebración de Santa Ageda en Oion. Me parece algo interesante y enriquecedor, tienes la opción de hablar en euskera con otros alumnos y practicarlo, ya que en nuestra zona son pocas las oportunidades que se dan. Además, te juntas con gente de toda la Rioja Alavesa.

**Hace poquito has sido nombrado concejal de Elciego. En Oion por ejemplo hay un concejal que en los plenos hace sus propuestas en euskera. Por lo poco que tu has podido**

**ver, ¿Esto es común? ¿Como ves la situación del euskera en ese ámbito? ¿Hay un mínimo de conocimiento de euskara entre los políticos, concejales, alcaldes... de la zona?**

Hay muy pocos que saben euskera, la verdad que este año al ayuntamiento de Elciego solo hemos entrado tres concejales que lo conocemos. Y en el resto de pueblos puede ser algo parecido, somos muy pocos los euskaldunes en este ámbito. Y utilizarlo, prácticamente no se utiliza. Es una pena, por eso habría que hacer un plan para animar a los concejales a estudiarlo, para que luego se pueda utilizar.

**Udaletxearen alorrean oso gutxi gara euskara ezagutzen dugunok eta ez da erabiltzen. Horregatik beharrezkoa litzateke zinegotziak animatzeko plan bat egitea; hauek ikasiz gero, erabiltzea posiblea izango litzatekeelako.**

### ¿Como ves la situación del euskera en la comarca?

Hay gente trabajando a favor del euskera, IKA o Tiki-ttaka, por ejemplo. Y aunque queda mucho por hacer, se nota esa labor. Por que cada vez se nota una mayor presencia; además, si viene gente de otras zonas que utilizan el euskera como lengua principal, la gente de aquí se anima a hablarlo, la gente joven mas que nada. Pero como ya he dicho queda mucho por hacer.

### ¿Por ejemplo? ¿Que crees que habría que hacer para mejorar la situación actual?

Mediante actividades que fomenten el uso del euskera en la población en general. Y así crear más situaciones donde los euskaldunes de la zona lo podamos utilizar. Aparte de esto, sería interesante llevar a cabo planes que fomenten el uso, sobre todo en los sectores de atención al público: centros de salud, bares...

### ¿Que le dirías a alguien que no sabe euskera?

Que se animara a estudiarlo, porque el estudiar euskera en el euskaltegi es más que aprender un idioma, es una experiencia bonita y enriquecedora.

**Euskaltegian euskara ikastea, hizkuntza bat ikaste hutsa baino gehiago da; esperientzia bat da, polita eta aberasgarria.**

El verano ha comenzado y con ello las fiestas de nuestros pueblos. Por eso en este número hemos querido preguntar a los alumnos del Euskaltegi: ¿Cuál

es la fiesta que más os gusta de nuestra comarca? ¡Atentos! Os puede servir para hacer los planes de las próximas semanas.



### Biasteriko San Juanak

Orain arte gehien gustatu zaizkidan festak izan dira. Egun berezia da, udako solstizioa da eta. Gainera, duela 35 bat urte bertan bizitza aldatu zidan pertsona bat ezagutu nuen, oso jakintsua eta harrezkeroztik ez dut ahaztu.

**Xabier Toledano** (Labraza)



### Ziekoko pintxo-pote berezia

Festa hau gustatzen zait oso giro polita dagoelako egun osoan zehar. Gainera, Orkestra elektrotzaranga kaleetan zehar musika rokeroa jotzen ibiltzen da eta oso dibertigarria da.

**Marta Irigoyen** (Bilar)

### Billarreko jaiak

Billarreko festak gustatzen zaizkit gauetan dena plazan kokatu ohi delako, bertan txosna eta erromeria dago. Besterik behar? Horretaz gain, antzezten duten Akelarrea ere izugarri gustatzen zait. Ekintza parte hartzailea da; herriko zenbait pertsonen ikuskizun hau antolatu eta gauzatzen dute. Ikusteko modukoa benetan!

**Esther Mauleon** (Lantziego)



### Moretako jaiak

Moretakoak aukeratuko nituzke. Herri txikietan giro hobea sortzen delako, eta Moretako jendea bereziki alaia delako.

**Unai Moreno** (Oion)

### Campillarreko jaiak

Niri Campillarreko jaiak gustatzen zaizkit. Ez dago pilota partidurik, ez dago entzierrorik, ez dago barrakarik; baina herritar guztiak elkarrekin ibiltzen gara. Larunbata egunik garrantzitsuen da. Txokoan jende asko elkartzen gara afaltzeko eta bazkaltzeko. Gero, musikarekin dantzatzen gara.

**Sara Amestoy** (Campillar)



### Labrazako jaiak

Labrazako jaiak nire ustez jairik onenak dira. Abuztuaren bigarren asteburuan ospatzen ditugu. "TÓCAME ROQUE" izeneko panpina zintzilikatzen dugu plaza gainean. Gainera, kalejira egiten dugu upeltegiz upeltegi. Astelehenean, herribazkaria antolatzen dugu, eta zapatila jaurtiketa txapelketa ere egiten dugu. Anima zaitzte, eta datorren abuztuan etor zaitzete gure herrira jaiak pasatzera.

**Elias García** (Labraza)





### Oiongo Jaiak

Guri Oiongo jaiak izugarri gustatzen zaizkigu bertakoak garelako, eta jendea ezagutzen dugulako. Gainera, gauza asko gustatzen zaizkigu: Katxiren jaitsiera, suak, zezensuzkoa, entzierroak, dantza tipikoak, dastaketak; eta batez ere, lagunekin eta familiarekin biltzea.

**M<sup>a</sup> Jesus Ruiz-Esquide** eta **Esti Barreras** (Oion)



### Bastidako San Gines erromeria

Maiatzeko astelehen batean ospatzen da. Beste ekitaldi askoren artean, bertan bazkaldu eta gero ardoaren gerra egiten da. Bukatzeko, dantzak ere egiten dira. Festa txikia, originala, herrikoa eta dibertigarria delako gustatzen zait.

**Maite Ramirez** (Bastida)



### Mahats Biltzearen Festa

Niri gehien gustatzen zaidan festa "Mahats Biltzearen Festa" da. Lehenik, eskualdeko herri guztietan, txandaka, ospatzen delako, eta horrek gure herri guztiei dotore janzteko aukera ematen die; hortaz, herritarrak beren herriaz harro sentitzeko aukera paregabea da. Eta guztia eskualdeko ardo onenak dastatuz, inork badu proposamen hoberik?

**Leire Zabala** (Oion)



### Vianako inauteriak

Niri Vianako inauteriak gustatzen zaizkit. Jende asko biltzen da, ohiko inauteriak ospatu eta hurrengo asteburuan izaten direlako; herriko giroa oso ona da eta jende guztia mozorrotuta egoten da.

**Miguel Valledor** (Lantziego)



### Labrazako festak

Nire ustez Labrazakoak dira onenak. Herri txikia izan arren, giro zoragarria izaten da, eta, gainera, herritarrek ezin hobeto hartzen dituzte kanpokoak.

**Leire Saenz** (Oion)



### Biasteriko San Juanak

Nire ustez Biasteriko San Juanak dira Arabako Errioxako besta hoberenak. Batetik, oporrei hasiera ematen dieten jai bihurtu dira. Bestalde, "peñek" edota herriko jendeak lortutako giroa paregabea delako. Aste batean zehar, Biasterik ez du lorik egiten, txarangak, ekitaldiak, zezenak... edozein ordutan aurki baititzaitez.

**Lydia Muñoz** (Mainueta)



**TESTUAK:** Arabako Errioxako IKA

**ARGAZKIAK:** Arabako Errioxako IKA.

**Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.**

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

**Oiongo IKA euskaltegia.** Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

**Biasteriko IKA Euskaltegia.** Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikaeuskaltegiak.eus>

[errioxa@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:errioxa@ikaeuskaltegiak.eus)

## Zuek ere euskaraz

Desde el nº anterior las lecciones de euskera de Mantible tienen su correspondiente explicación y continuación en Radio Rioja Alavesa (FM

105.8) a las 15:30 en la sección “Zer moduz?”. En el anterior dábamos unos apuntes para los que ya sabían algo. En este ejemplar de julio, los de nivel más

avanzado encontraréis un test que recoge varios fallos que se escuchan en nuestra zona. Las explicaciones en la radio comenzarán a mediados de septiembre.

### 1.- Arabako Errioxan ba al da euskararen aldeko elkarterik?

- Egongo ez da, ba! Eskuernagan, Lantziegon eta ere bai Lapueblan.
- Noski baietz! Eskuernagan, Lantziegon eta baita ere Lapueblan.
- Egongo ez da, ba! Eskuernagan, Lantziegon eta Lapueblan ere bai

### 2.- Zenbat pertsonak eman dute izena euskaltegian?

- Aurreko ikasturtean ehun eta berrogeita zortzik eman zuten izena.
- Arabako Errioxako biztanleen %2ak eman du izena.
- Aurten falta diren %98ari tokatzen zaio apuntatzea.

### 3.- Zein da zuzena?

- Euskaltegian itxarongo zaitut.
- Euskaraz hitz egiten euskaraz hitz eginez ikasten da.
- Euskara ikasteko bekak gero eta herri gehiagotan daudelaren berria zabaldu da.

### 4.- “Ez du ezer ere ez edan”. Zer dago gaizki?

- Bigarren “ez” hori soberan dago.
- Primeran dago!
- “ere” soberan dago.

### 5.- Zein da zuzena?

- Badaude ikasle batzuk primeran hitz egiten dutela.
- Oporrak iristeko gogoak ditut.
- Piper egiten harrapatu naute.

### 6.- “Aurreko galderetatik erdietan baino gehiagotan huts egin baduzu, euskaltegian matrikulatzea komeni zaizu”, zein da jarraipen egokia?

- Zu esaten duzulako, notejode!
- Hala egin beharko dugu, euskaraz ondo hitz egitea ere garrantzitsua da eta.
- IKA, IKA, IKA banindoakizuetek korrika.

## Soluzioak:

6.- zuzena b) da.

5.- zuzena c) da.

4.- zuzena a) da.

3.- zuzena b) da.

2.- zuzena a) da.

1.- zuzena c) da.

Guztiak ondo egin badituzu, jakin ezazu IKA euskaltegian irakasleen ordezkioak egiteko zu bezalakoak behar dituztela.

Lauzpabost ongi erantzun badituzu, Mintzalagun proiektuan laguntza handia izan zaitetzke, apunta zaitetz.

Hiru besterik asmatu ez baduzu, entzun itzazu Arabako Errioxa irratiko azalpenak, ondo etorriko zaizkizu eta.

## 2014-2015 IKASTURTEKO DATUAK / DATOS DEL CURSO 2014-2015

PUEBLOS / HERRIAK	ALUMNOS/AS / IKASLEAK
Andosilla	1
Bargota	1
Bastida/ Labastida	8
Bilar/ Elvillar	4
Biasteri/ Laguardia	16
Ekora/ Yécora	1
Eskuernaga/Villabuena de Álava	3
Gorrebusto/ Barriobusto	1
<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>148</b>

PUEBLOS / HERRIAK	ALUMNOS/AS / IKASLEAK
Haro	7
Labraza	2
Lantziego /Lanciego	8
Lapuebla de Labarca	7
Leza	1
Logroño	25
Mañueta/ Baños de Ebro	4
Mendabia/Mendavia	2

PUEBLOS / HERRIAK	ALUMNOS/AS / IKASLEAK
Miranda de Ebro	1
Moreta /Moreda	1
Navaridas	2
Oion/Oyón	31
Paganos	1
Samaniego	1
Viana	6
Zieko/ Elciego	4
Beste batzuk/Otros	10